

BONU DIGITALA KONTRATATZEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

Dokumentu honetan, Euskaltel SAre (IFK: A-48766695. Helbidea: Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160 Derio) eta Zerbitzuaren Bezeroaren ("Bezeroa") arteko kontratuaren ginetik dauden kontratazio-baldintza partikularrak jasotzen dira.

Kontratazio-baldintza partikular hauek indarrean sartzeko, EUSKALTELeK egiaztatu behar du –Eusko Jaurlaritzarekin eta Bezeroaren alde aurreko baimenarekin– kolektibo kalteberentzako Bonu Digitalaren laguntzaren onuradun dela Bezeroa, Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan. Beraz, Euskaltelen eta Bezeroaren artean sinatutako kontratuak baldintza hauek bete behar ditu:

1. Euskaltelek kokapen finko batetik banda zabaleko konexio-zerbitzu bat emango dio Bezeroari. Jaisteko abiadura, puntako orduetan, 30 Mb/s-koa izango da gutxienez.
2. Euskaltelek gehienez 20 euroko hobaria aplikatuko dio bezeroari banda zabaleko konexio-zerbitzuan, igorritako fakturaren azken prezioaren gainean (urteko laguntza 240 eurokoa izango da gehienez).
3. Bonu soziala bateragarria da bonuaren onuradunak nahieran kontrata ditzakeen zerbitzu bateratuekin, baina hilean gehienez ere 20 euroko hobaria aplikatuko zaio banda zabaleko konexio-zerbitzuari.
4. Konexioa ezarriko den etxebizitza bonu digitala emateko ebazpenean adierazitako bera da, eta bonuak etxebizitza horretarako eta kontratuaren titularrarentzako bakarrik balioko du. Zerbitzua eskainiko den helbidea aldatuz gero, Bezeroak alde aurretik baimena eskatu beharko dio eten digitalaren aurkako borrokan eskumenak dituen EAEko zuzendaritza nagusiari.
5. Kontratu honek ez du barne hartzen iraupen-konpromisorik, ez zuntzaren instalazioarekin lotutakorik, ez eta bonu digitala indarrean dagoen bitartean banda zabaleko konexio-zerbitzuari lotutako

Bezeroak erakartzeko deskontuei lotutakorik ere. Beraz, bonuak irauten duen 12 hilabeteetan, Bezeroak eta bonu digitalaren onuradunak kontratu hau bertan behera utzi eta operadorea aldatzeko aukera du, eta Euskaltelek ezingo dio penalizaziorik aplikatu, ez zuntz optiko bidezko konexioagatik, eta ez banda zabaleko konexio-zerbitzuari lotutako bezeroak erakartzeko deskontuengatik.

6. Euskaltelek Bezeroari utzitako ekipook (ONTa, wifi-bideratzailea edo zerbitzuak behar bezala emateko beste edozein gailu), Euskaltelek lagako dizkio Bezeroari, eta Bezeroaren ardura izango da haiek egoki erabiltzea. Bezeroa behartuta dago ekipook erabilera- eta kontserbazio-egoera egokian itzultzera Euskalteli, haiek behar bezala erabiltzeko moduan, aldez aurretik Euskaltelek hala eskatzen badio, edozein unetan eta, kasu guztietan, zerbitzuaren kontratuan ezarritako epean. Bezeroak ez badu ekipoa epe horretan itzultzen, kontratuan zehaztutako penalizazioa aplikatuko dio Euskaltelek.
7. Bonuaren 12 hilabeteko iraupena amaitu ondoren, eta Bezeroak hobaririk gabe ere banda zabaleko zerbitzuarekin jarraitu nahi badu, kontratatutako zerbitzuak beste urtebetez mantenduko dira, gutxienez, zerbitzu-kontratuan eta baldintza espezifikoetan ezarritako baldintza beretan. Epe hori amaitutakoan, ez dira aplikatuko dokumentu honetan jasotako baldintza espezifikoak.